

- **Kaixo, ni Pello naiz eta nire aita Iñigo entrebistatuko dut, Zumaiari buruzko inkesta bati buruz. Nire aita 15 urte dioa Zumaian bizitzen.**
Lehenengo galdera:
1-2050ean, Zumaiak zenbat biztanle izango ditu?
 - Gaur egun bezala (10.000 inguru)
 - Gaur egun baino gutxiago
 - Gaur egun baino gehiago

- Gaur egun baino gehiago

- **Bigarren galdera:**
2-Zahar eta gazteen arteko proportzioa nolakoa izango da?
 - Gaur egun bezala mantenduko da.
 - Proportzioan, gaur egun baino edadetu gehiago.
 - Proportzioan, gaur egun baino gazte gehiago.

- Proportzioan gaur egun baino edadetu gehiago

- **Hirugarren galdera:**
3-Jatorriari dagokionez, nolakoa izango da herria?
 - Gaur egun bezala.
 - Inguruko herrietatik jende gehiago etorriko da.
 - Atzeritik jende gehiago etorriko da.

- Atzeritik jende gehiago etorriko da

- **Laugarren galdera**
4-2050ean, nolakoa izango da zumaiarren aberastasun maila dirutan?
 - Gaur egungoaren antzekoa.
 - Gaur egungoa baino aberatsagoak.
 - Gaur egungoa baino pobreagoak.

- Gaur egungo baino pobreagoak

- **Bostgarren galdera**
5-Nolakoa izango da herriko merkataritza?
 - Berdin jarraituko du
 - Bertako merkataritza ahuldu egingo da, ia dena Internetetik erosiko dugu
 - Bertakoa gehiago baloratuko dugu

- Bertakoa ahuldu egingo da, Interneten eraginez.

- **Seigarren galdera**
6-Zumaiarrak nola mugituko dira herrian bertan?
 - Kotxea erabiltzeko aukera izango dugu edozein lekura joateko.

-Gero eta kale gehiago peatonalizatuko dira: oinezkoek, bizikletek eta garraio publikoak izango dute lehentasuna.

-Herrira ezingo da kotxez sartu, garraio sistema publiko bat egongo da herrian batera eta bestera mugitzeko.

- Ez dakit, Agian gaur egun baino kotxe gutxiago egotea saiatuko dira.

- **Zazpigarren galdera**

7-2050ean, Zumaian klima aldaketaren ondorioak jasango al ditugu?

-Ez, orain bezala jarraituko dugu.

-Bai, baina oso arinak izango dira.

-Bai, ondorioak igertzeko modukoak izango dira.

- Bai, ondorioak igerriko dira, kontaminazioagatik gutxienez.

- **Zortzigarren galdera**

8-Itsasoaren mailaren igoerari aurre egiteko, zer neurri hobetsiko zenuke?

-Ez nuke ezer egingo, ez dago arriskurik.

-Herria babestuko nuke, errio ertz osoan harresi bat altxata.

-Errioari espazio gehiago eman beharko genioke eta herria pixkanaka kaskoetara mugitu.

- Errioari espazio gehiago eman beharko genioke eta herria pixkanaka kaskoetara mugitu.

- **Bederatzigarren galdera**

9-Herri nortasuna asko aldatuko al da?

-Gure ohiturak, hizkuntza eta herri nortasuna mantenduko ditugu.

-Erabat galduko da. Euskararen erabileran ere atzera egingo dugu nabarmen.

-Indartu egingo da, tokian tokiko nortasunak indarra hartuko du globalizazioaren aurrean.

- Tokiko nortasuna pixkanaka galdu egingo dugu.

- **Hamargarren galdera**

10-2050ean, gaur egun baino hobeto edo okerrago biziko dira zumaiarrak?

-Hobeto

-Okerrago

- Okerrago, uste dut.